



Iñaki Ruiz Manzano

LABORAL Kutxako Publizitate Zuzendaria eta Ekonomisten Euskal Elkargoko Presidentea. Enpresa Zientzietan lizentziaduna UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean eta Merkataritza Zuzendaritza eta Marketing Masterra ESICen.

Marketinaren eta publizitatearen arloan eta, bereziki, finantza marketinaren gaiari lotuta beti, bizipen erakargarri bezain garrantzitsu izan diren bizipenak zein erronkak bizi izan ditu. Esaterako, BBV eta Argentiaren arteko bat egitea, Baserritarren Kutxa izatetik Ipar Kutxa izaterainoko marka aldaketa eta Euskadiko Kutxaren eta Ipar Kutxaren arteko bat egitea LABORAL Kutxan. Marka aldaketez gain, baina, publizitatea ulertzeko eran izandako aldaketak, Interneten agerpena eta egun bizi dugun teknologia mugikorraren agerpena bizi izan ditu ere.

Marketing eta publizitatearen arloan egindako lanarekin batera, ekonomista gisa lan egiten du ere, unibertsitatea atzean utzi zuenetik, Ekonomisten Euskal Elkargoaren bitartez. Kargu ezberdinak izan ditu eta EEEn presidentea da egun. Bere plan estrategikoaren eta eraldaketa digitala bermatzeko egitasmoen buru da. Halaber, Espainiako Ekonomisten Kontseilu Nagusiko idazkariordea da, kontseilu horren batzorde iraunkorraren barruan.

[\[Informazio gehiago\]](#)